




zakilixut

© Olariagak



HONDAR ALEA

MARATILA

Osasunarekin urratua

MIDAS-EN I. MINTEGIA EUSKAL HERRIAN. Martin Ugalde kultur parkean hasi zen atzo Hizkuntz Gutxituen Europako Egunkarien Elkartearen egitasmo berria.

AMAGOIA IBAN - ANDOAIN

EKTren Administrazio Kontseiluko idazkari Joanmari Larrarte Martin Ugalde kultur parkearen aurrekarien eta sorreraren berri ematen hasi aurretik, aldi bereko itzulpena entzuteko aurikularrak sintonizatu ezinda ibili ziren MIDASen lehendabiziko mintegira etorritako bisitarietako batzuk. Hizkuntza gutxituetan argitaratzen diren Europako egunkarien elkartearen idazkaria, Gunther Rautz, gortuta geratu zen une batez belarri zuloetatik ingelesez ozenegi hasi zitzaion ahotsarekin. Barreka hasi ziren guztiak, Rautz bera lehenengo. Umore onarekin eta jakin-minarekin hasi zuten eguna, eta halaxe jarraitu zuten hurrengo orduetan ere.

Jarraian, BERRIA nola sortu eta garatu den auzaldea egokitu zitzaion Martxelo Otamendiri. Aurretik, *Euskaldunon Egunkaria* itxi ostean herriz herri erakutsi zuten bideoa ikusi zuten MIDASen lehendabiziko mintegian parte hartzen ari diren zortzi pertsonen —*Dolomiten* kazetako Rainer Lechner, *Vasabladet*-eko Styg Nigard, *Primorski Dnevnik*-eko Daniel Radetic, *El Punt*-eko Maria Dolores Belles i Sabata, *Jakobstads Tidning*-eko Petter Granroth, *Új Szó*-ko Katarina Jukaszova, *Diari de Balears*-eko Joan Riera eta Gunther Rautz—. *Egunkaria* nola, zein testuingurutan eta zein helbururekin sortu zen azaldu zien Otamendik. Baita itxi zutenean zeuzkan ezaugarriak eta zenbat irakurle zituen aipatu ere.



MARTXELO OTAMENDIK mintegiko kideei Martin Ugalde kultur parkean harrera egin zien unean. A. CANELLADA / ARGAZKI

BERRIA abian jartzeko eman diren pausoak, hamaika herritarrek eta eragilek eskaintako laguntza, aurrera begirako asmoak, eskualdekako *Hitza* sortaren garrantzia... aletu zizkien Otamendik, euskaraz batzuetan, ingelesez besteetan. «Epaileak ezin du sinetsi *Egunkaria* abian jartzeko erabili zen euro milioia herriz herri bildu zenik. Orain, berriz, bost milioi biltze ar gaude. Hogeita zortzi milatik gora akziodun ditugu».

Galdera ugari

Informazioa jaso ahala, galdeka hasi ziren mintegiko kideak. «Eta zer dio epaileak Iñaki Uriari buruz?», galdetu zuen Petter Granrothek. «Eta nola banatzen duzue egunkaria?», Styg Nigar-

dek. Hartu berri zuten kafe hutsak mingaina bereziki askatu zien bi kazetariok. «Harpidedun izateak zertan egiten dio mesede irakurleari?», «zenbateko lan taldea duzue?», «zein da oinarritzko kazetarien soldata?», «argazkilariak ba al dauzkazue?», «non inprimatzen duzue egunkaria?». Halako batean, horoskopoparen orrialdera heldu ziren guztiak. «Zer da hau?». Bakarrak galdetu zuen, baina gehienek zuten galdera bera aurpegian idatzita. Horoskopopak ez dira oso ohikoak, antza, Europa iparraldeko egunkarrietan. Barre txikiak ikusi ziren kazetari gazteenen aurpegietan.

Galderen txanda amaitu zenean, Alizia Sturtzek Euskal Herriaren historiari buruzko hitzaldia eman zien. Bazkaloste-

an, berriz, Euskararen Gizarte Eragileen Kontseiluko buru Xabier Mendiguren eta Hizkuntz Eskubideen Behatokiko Juan Inazio Hartsuagarekin bilera egin zuten. Han ere, galdera ugari egin zituzten. «Euskararen egoerari buruzko galderez gain, bestelako galderak ere egin dizkiete: euskaldunen nortasunari buruz, eguraldiak nortasun horretan izan dezakeen eraginari buruz... denetarik galdetu dute», zioen Maria Colera itzultzaileak.

Jaurlearitzako Kultura Saila bisitatuko dute gaur goizean, eta Goiena Komunikazio Zerbitzuak arratsaldean. Jarraian, BERRIAREN erredakzioa ezagutuko dute sailez sail. Atzo osasunarekin urratutakoa modu berean jarraitzekoak dira gaur.

GARI BERSALUZE

Hogeita bat gramo

Ikusi duzue Alejandro Gonzalez Iñarrituren azken filma? Hiltzen garenean zergatik pisatzen dugu hogeita bat gramo gutxiago? Zinema kritikoei zergatik ez zaie hainbeste gustatu? Eta guri zergatik iruditu zaigu azken urteotako onenetakoa? Zein da zure bihotzaren pisua? Zenbat aldiz hil gaitzake? Zenbat malko isur ditzake bihotz batek? Noiz ohartzen gara hilda gaudela? Zer da maitasuna? Zenbat pisatzen du itzalak? Itsasoak betiko ezabatzen ditu hondartzako oinatzak? Nora joaten dira itsasbeheran isuritako malkoak? Non daude barkamenaren mugak? Zer da heriotza? Zenbat kasualitate behar dira bi pertsonen elkar ezagutzeko? Zenbat behar dira biak aldentzeko? Hilda egon arren, zergatik tematzen gara bizirik gaudela sinesten? Zenbat pisatzen du bizitzak? Nor da erruduna? Erruak eta errukiak erro bera al dute? Bizitzak egin dezake aurrera ezer gertatu ez balitz bezala? Zer dago bihotz baten barruan? Zenbat pisatzen du mendekuak? Zenbat aldiz bizi gaitzake? Hiltzeko gau ederra da gaurkoa? Ba al da hiltzeko ederra ez den gaurik? Nora doan ez dakiena galdu al daiteke? Zenbat pisatzen du maitasunak? Malkoak gramotan neurtzen dira? Ala mililitrotan? Zenbat buelta eman behar ditu munduak gu elkarrengana hurbiltzeko? Bizi daiteke bihotz baten zain? Zenbat aukeren bilduma da bizitza? Eman gabeko zenbat aukeren bilduma da heriotza? Zertarako behar dugu beste bihotz bat? Berrito hiltzeko? Berrito amets egiteko? Zenbat pisatzen dute ametsak? Hogeita bat gramok zergatik pisatzen du hogeita bat gramo baino askoz gehiago? Zenbat galdera daude zutabe honetan?